

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3501

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2010. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko eta ukatzeko dena. Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2010eko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez, 2010. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen (2010eko otsailaren 8ko EHAA, 25 zk.). Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko emango dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Ebazpen horren 12.1 artikulua ezartzen duenez, eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen batez ebatziko dira, horretarako izendatutako Hautaketa Batzordeak proposatuta. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Artikulu horren 3. paragrafoan ezarritakoaren araberak, laguntzak emateko ebazpen honetan zehazten dira diru-laguntza eman eta ukatu zaien enpresak eta entitateak, izendatu zaizkien diru-zenbatekoak eta, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkotza izango diren entitateak.

Adierazitakoagatik, Hautaketa Batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinean dauden enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ematea, bakoitzari izendatu zaion diru-zenbatekoaz. Guztira, hirurogeita hamasei mila hirurehun eta lau-geita bost (76.385) euro eman dira.

Bigarrena.— Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuak ordezkotza izendatzea. Gehienez ere jaso lezaketzen zenbatekoa ere zehazten da.

Hirugarrena.— Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ukatzea, ukapenaren arrazoia esanez.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3501

RESOLUCIÓN de 14 de junio de 2010, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se conceden y se deniegan subvenciones para el año 2010 a empresas y a entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico sobre la igualdad de mujeres y hombres y un plan de igualdad.

Por Resolución de 13 de enero de 2010, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer (BOPV n.º 25, de 8 de febrero de 2010), se convocaron subvenciones para el año 2010 dirigidas a empresas y a entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico sobre la igualdad de mujeres y hombres y un plan de igualdad.

El artículo 12.1 de la citada Resolución establece que las solicitudes serán resueltas, a propuesta de la Comisión de Selección nombrada para tal fin, mediante Resolución de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco a los efectos de general conocimiento.

En virtud de lo establecido en el párrafo 3 del citado artículo, la presente Resolución de concesión identifica las empresas y entidades subvencionadas, y los importes asignados, las denegadas, así como las entidades solicitantes suplentes en el caso de que se produzca alguna renuncia por parte de las beneficiarias.

Por todo lo expuesto, y considerada la propuesta de la Comisión de selección,

RESUELVO:

Primero.— Conceder las subvenciones por importe total de setenta y seis mil trescientos ochenta y cinco (76.385) euros a las empresas y entidades privadas que se relacionan en el anexo I de la presente Resolución, por el importe concreto que se indica en el mismo.

Segundo.— Nombrar suplentes a las empresas y entidades privadas que se mencionan en el anexo II de la presente Resolución con el importe máximo que, en su caso, podrán recibir.

Tercero.— Denegar las subvenciones a las empresas y entidades privadas relacionadas en el anexo III de la presente Resolución, con expresión del motivo de denegación.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hila-beteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 14a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

Cuarto.– Disponer la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la presente Resolución.

Quinto.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la misma, conforme a lo establecido en el artículo 8.3 y en los párrafos 1 y 4 del artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de junio de 2010.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

I. ERANSKINA / ANEXO I

ENPRESA ETA ENTITATE ONURADUNEN ZERRENDA RELACIÓN DE EMPRESAS Y ENTIDADES BENEFICIARIAS

Espediente zenbakia <i>Número expediente</i>	Eskatzailea <i>Solicitante</i>	Diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan) <i>Cuántía de la subvención (en euros)</i>
2010/05 SE	Eclat Limpieza, S.A.	8.000,00
2010/07 SE	Digital Mobiles, S.L. (Digitalak)	4.000,00
2010/08 SE	Cear Euskadi	8.549,00
2010/11 SE	Aceria de Álava, S.A.	7.265,00
2010/09 SE	Asociación Contra la Exclusión Social «Margotu»	8.642,00
2010/19 SE	Berohi S. COOP. de Iniciativa Social	4.125,00
2010/15 SE	Eldu, S.A.	4.937,50
2010/10 SE	Tubacex, S.A.	4.225,00
2010/01 SE	Txindorra Kontsultoria, S.L.	3.492,50
2010/03 SE	Autobuses Cuadra, S.A.	6.000,00
2010/14 SE	Arteche Centro de Tecnología, A.I.E.	4.675,00
2010/16 SE	Fundación Gizakia	6.600,00
2010/06 SE	Centro Socio Sanitario Cruz Roja - Residencia Irun	5.874,00
<i>Guztira/ Total</i>		76.385,00

II. ERANSKINA / ANEXO II

ENPRESA ETA ENTITATE ORDEZKOEN ZERRENDA RELACIÓN DE EMPRESAS Y ENTIDADES SUPLENTES

Espediente zenbakia <i>Número expediente</i>	Eskatzailea <i>Solicitante</i>	Gehieneko diru-kopurua (eurotan) <i>Cuántía máxima (en euros)</i>
2010/02 SE	IRSE - Instituto de Reintegración Social de Álava	10.000
2010/13 SE	Arteche Lantegi Elkartea, S.A.	3.505

III. ERANSKINA / ANEXO III

DIRU-LAGUNTZAK UKATU ZAIEN ENPRESAK ETA ENTITATEAK
 RELACIÓN DE EMPRESAS Y ENTIDADES DENEGADAS

Espediente zenbakia <i>Número expediente</i>	Eskatzailea <i>Solicitante</i>	Ukapen arrazoia <i>Motivo de denegación</i>
2010/04 SE	Asociación de Esclerosis Múltiple de Bizkaia- ADEMBI	Gutxieneko puntuazioa ez du lortu <i>No alcanza la puntuación mínima</i>
2010/18 SE	Rezikleta S. COOP. de Iniciativa Social	Gutxieneko puntuazioa ez du lortu <i>No alcanza la puntuación mínima</i>
2010/12 SE	Fundación Bizitzen - Bizitzen Fundazioa	Gutxieneko puntuazioa ez du lortu <i>No alcanza la puntuación mínima</i>
2010/17 SE	Ekiber S. COOP.	Gutxieneko puntuazioa ez du lortu <i>No alcanza la puntuación mínima</i>